

"2.000 € Gabonetarako opari-txarteletan" SUSTAPENAREN OINARRIAK

Mendibil Merkataritza Parkeko Jabekideen Erkidegoak (helbidea: Arizmendi Almirante kalea, 9 - 20302, Irun, Gipuzkoa) (IFK: H-20818944)

"2.000 € Gabonetarako opari-txarteletan" zozketa antolatu du.

Sustapen-ekintza hau Mendibil Merkataritza Zentroko bezeroei zuzenduta dago, 2020ko azaroaren 30etik 2021eko urtarrilaren 3ra (biak barne) establezimenduetan erosketak egiten badituzte. Erosketa horiek parte hartzeko aukera emango diete, 50 euroko 40 sarien zozketaren sustapenaren mekanika betez. Sariak opari-txarteleen bidez emango dira. Guztira, 2.000 € oparituko dira opari-txarteletan.

SUSTAPENAREN MEKANIKA

Promozioak irauten duen bitartean, Mendibil merkataritza-guneko edozein saltokitan erosketak egiten dituzten 16 urtetik gorako pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute promozioan.

Bezeroak izena eman beharko du parte hartzeko formularioak eskatzen dituen eremuak betez, eta 20 € edo gehiagoko erosketa-tiketari dagozkion datuak sartu beharko ditu www.centrocomercialmendibil.com merkataritza-zentroaren webgunean. Erosketa-txartel hori aurkeztu beharko da saria jasotzeko orduan, baldin eta 40 sarietako bat jasotzen badu.

Txartel bakoitzarekin behin bakarrik parte hartu ahal izango da, eta pertsona batek ezingo du sari bat baino gehiago jaso.

Zozketa honetan ez dute parte hartuko Mendibil Merkataritza Guneko Jabeen Erkidegoko langileek, ez eta zentro berean edo haren establezimenduetan lan egiten duten langileek ere.

ZOKKETAREN MEKANIKA

40 opari-txartelen zozketak abenduaren 7an, 14an, 21, 28an eta urtarrilaren 4an izango dira.

Opari-txartelak jasotzeko, irabazleek merkataritza guneko gerentzia-bulegora joan beharko dute, eta webguneako erregistroko datuak berretsi beharko dituzte, erosketa-tiketa eta NAN agiria aurkeztuta.

Irabazle bakoitzari 10 euroko 5 opari-txartel emango zaizkio, txarteletan adierazitako Mendibil merkataritza-guneko saltokietan erabili ahal izateko. Opari-txartelak 2021eko urtarrilaren 31ra arte izango dira baliozkoak.

PARTE HARTZEKO NAHITAEZKO BETEKIZUNAK ETA BALDINTZA OROKORRAK

Sustapenean parte hartuz gero, oinarri hauek oso-osorik onartzen dira; hortaz, oinarriak onartzen ez direla adieraziz gero, parte-hartzailea sustapenetik kanpo geratuko da.

Horrenbestez, Mendibil merkataritza-parkeko jabeen erkidegoak ez du parte-hartzailearekin aurretik hartutako inolako betebeharririk edukiko.

Sustapenaren sariak indarrean dauden zerga- eta lege-xedapenen mende daude.

Mendibil merkataritza-guneak sustapen honen baldintzak edozein unetan aldatzeko eskubidea izango du, bai eta kanpaina amaitu baino lehenago sustapena deuseztatzeko eskubidea ere, baldin eta justifikatutako arrazoiak badaude.

Irabazleak ezin izango dio saria beste inori laga eta sariak ez dira inolaz ere diruagatik trukatu.

Zozketaren irabazleek beren irudi-eskubideak laga eta baimentzen dizkiote Mendibil merkataritza-parkeko jabeen erkidegoari, eta, gainera, jabeen erkidego horrek haien izen-abizenak, bizi diren hiria eta herrialdea eta irudia erabili ahal izango ditu barne zein kanpo komunikabideetan merkataritza-gunearen publizitatea egiteko. Horrez gain, erabiltzeak ez die lortutako saria baino eskubide gehiagorik emango. Irabazleak ez badizkio Mendibil merkataritza-parkeko jabeen erkidegoari hemen aitortutako eskubideak baimentzen, ulertuko da irabazleak ez duela saria nahi. Horrenbestez, jaso baldin badu, itzuli beharko du.